

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasunak 597.000 euroko inbertsioa egin du Nafarroako Ospitale Gunerako 16 ekografo erosteko

O-NOZeko 57 osasun-zentrotan ekografoak jartzeko 2016an jarri zen plana abian, eta 2019an amaituko da, guztira 753.000 euroko kostuarekin

Ostirala, 2018.eko abenduak 7

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ) 597.000 euroko inbertsioa egin du 16 ekografo erosteko, Nafarroako Ospitale Guneko zerbitzu ezberdinetarako.

Ekografoen ekipo berriak zerbitzu hauetan ezarriko dira: 6 Obstetria eta Ginekologiarako (1 gama altukoa, 1 gama ertainekoa eta 4 oinarrizkoak); oinarrizko ekipo bat Urologia, Endokrinologia eta Nutrizioa, Barne Medikuntza eta Bihotzeko arlo kliniko eta Errehabilitazioko espezialitate bakoitzerako; 1 Medikuntza Intentsiborako; eta 4 doppler ekipo, gama altukoak, Erradiologiarako.



Ekografoaren irudia.

2019. urtean, osasun-zentro guztietan ekografo bat egongo da

Bestalde, Lehen Arretako Zuzendaritzak datorren urtean amaituko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 57 osasun-zentrotan ekografoa jartzeko 2016an abian jarritako plana.

Aurtengo urtera arte 45 ekipo erosi dituzte, eta 2019an gainerako 12 ekipo erosteko kontratua egingo da. Ekipoen kostua guztira 753.626 eurokoa da. Modu horretan, O-NOZek sare publikoan (Lehen Arreta eta NOG) ekografoak jartzeko guztira 1.356.626 euroko inbertsioa egin du.

Gaur egun, osasun-zentro hauetan dute ekografoa: Altsasu, Irurtzun, Lesaka, Elizondo, Doneztebe, Agoitz, Uharte, Orkoien, Gares, Noain, Zangoza, Salazar, Larraga, Erriberri, Azkoien, Atarrabia, Burlata, Berriozar, Iruña (Azpilagaña, San Juan II Zabalgunea, Buztintxuri, Sarriguren, San Jorge, Rotxapea, Txantrea, Iturrama eta Ermitagaña), Zizur, Barañain I, Milagrosa, Antsoain, Tafalla, Valtierra, Corella, Cintruénigo, Cascante, Buñuel, Tuterako Ekiak, Allo, Antzin-Ameskoa, Los Arcos, Lodosa, San Adrian eta Lizarra.

Urte honetan (azaroaren 15eko datuak), aipatu osasun-zentroek

2.083 ekografia egin dituzte guztira.

Ebazpen-ahalmenaren hobekuntza

Ekografoak jartzea Lehen Arreta indartzeko planean sartzen da, profesionalen ebazpen-ahalmena hobetzeaz gain, hurrengo laguntza-mailara desbideratzeko orientazioa egokitu eta desbideratze desegokiak edo gaixoentzako alferrikako joan-etorriak nahiz atzerapen diagnostikoak saihesteko helburuarekin.

Ekografia klinikoaren bitartez, kontsultatutako arazo zehatza ebazteko proba egiten da. Lehen Arretako profesionalek, erreminta horri esker, barne-egiturak behatu, neurtu eta ebaluatu ahal izango dituzte, segurtasuna gehituz eta ebazteko ahalmena hobetuz.

Ondorioz, proba egiten duen fakultatiboak trebakuntza espezifikoa behar du. Osasun-zentro bakoitzean ekipoak jartzearekin batera, alde zuzeneko prestakuntza-programa jorratuko da ekografiak egiteko ardura duten medikuntzako langileekin.